

FRUITU ETA BARAZKIEN INBENTARIOA (IRUDIDUNA)

Testua: VIRGINIE ALADJIDI

Irudiak: EMMANUELLE TCHOUKRIEL

Itzulpena: JUANJOXE PETRIRENA eta MIKEL TABERNA

Azal gogorrez koadernatua. 21,5 x 30 cm. 80 or. 17 €.

Fruitu eta barazkien inbentarioa (irudiduna) (euskara)
ISBN 978-84-9172-100-0. Zientzia.

Inventario ilustrado de frutas y verduras (castellano)
ISBN 978-84-16721-42-9. Ciencia.

Inventario ilustrado de froitas e verduras (gallego)
ISBN 978-84-16721-41-2. Ciencia.

Inventari il·lustrat de les fruites i les hortalisses (catalán)
ISBN 978-84-16804-72-6. Ciències.

Inventário ilustrado dos frutos e legumes (português)
ISBN 978-989-54340-0-8. Ciência.

Fruituen artean, drupak (fruitu hezurdunak), baiak (hezurrik gabe, baina bihi bat edo batzuk dituztenak), oskoldunak (intxaurrak, esate baterako), zitrikoak, eta beste batzuk ikusiko ditugu hemen. Barazkien artean, lekaleak, barazki berdeak eta tuberkuluak bereziko ditugu. Aipatuko ditugu, baita ere, elikagai elaboratuago batzuen jatorrian dauden landareak...

“Fruitu eta barazkien inbentarioa (irudiduna)” liburuak ehun bat mokadu goxo biltzen ditu: landare jangarriak, gordinik edo kozinatuta jan daitezkeenak. Fruituak, zurtoinak, erraboilak, sustraiak, haziak, hostoak, loreak... baita horien lehengaietatik ateratzen diren produktuak ere, hala nola tea, kafea, marmelada, edo txokolatea. Espeziak, perretxikoak eta algak ere jaso dira. Batzuk oso ezagunak ditugu: esate baterako, mahatsa edo patata; beste batzuk, arrotz samarrak dira, hala nola karanbola, edo izen bitxia dutenak, Judasen belarria, kasu.

Paule Lacroix ingeneritza agronomoko doktoreak irakurketa zientifikoa egin dio liburuari, eta bertan argi bereizten dira landarearen kontzeptu botanikoa eta sukaldaritzan eman zaion izena, jateko prestatzen denean sortzen dena. Bestalde, obra honek azpimarratu nahi du biodibertsitatearen, jasangarritasunaren eta elikadura osasungarriaren garrantzia.

Kolorearen arabera sailkatuta, inbentario eder honetako fruitu eta barazkiak modu askotara agertzen dira: jatorria duten loreari loturik, naturan aurkitzen diren bezala edo bertatik bildu ondoren, osorik edo zatikatuta... Landareekin batera marraztu diren animaliak (intsektuak -erleak, kasu-, hegaztiak, narrastiak eta belarjale txikiak) lagungarri dira landare bakoitza bere ingurunean kokatzeko.



- **Gala:** landare katalogoa, mundu osoko 100 espezie baino gehiago biltzen dituena.
- **Zela adinetarako:** 6 urtetik aurrera.
- **Nabarmentzekoak:** irudi naturalistak, tintaz eta akuarelaz; irudi-orri bakoitzean, marrazkiak, izen arrunta eta zientifikoa eta deskribapena datoz; kolorearen arabera sailkatuta; beste *Inbentario irudidunak*: “[dinosaueroak](#)”. Eta laster euskaraz: “animaliak”, “animalia buztandunak”, “itsasoak”, “hegaztiak”, “loreak”, “zuhaitzak”, “intsektuak”.
- **Liburuaren lagina:**
<https://issuu.com/kalandraka.com/docs/fruitu-eta-barazkien-eusk>

Virginie Aladjidi

Hainbat urtez gazteentzako aldizkarietan eta argitaletxeetan aritu da. Gaur egun, liburu eta testu bildumak sortzen ditu, Caroline Pellissier lankide duela.

<http://virginiealadjidi.blogspot.com>

Emmanuelle Tchoukriel

Arte Aplikatuaren ikasketak egin zituen eta ikusizko komunikazioaren arloan osatu zuen bere formakuntza, Parisko Estienne Eskolan sartu eta irudigintza mediko eta zientifikoa espezializatu baino lehen.

<http://tchouk-tchouk.blogspot.com>

